



**XABIER MUNIBE**  
**IKASTOLAKO**

**ERRROMAKO**  
**ZUBIA**

**II.IPUIN -OLERKI**  
**LEHIAKETA**

*Errromako zubiak kolore  
guztiak onartzen ditu*

## KANPOTIK DESBERDINAK, BARRUTIK BERDINAK

Egun batean, erromako zubia ikusi nuen. Zazpi kolore zeuden: gorria, laranja, horia, berdea, urdin argia, urdin iluna eta lila.

Han, koloreak burrukan ari ziren eta hara hurbiltzera erabaki nuen ikusteko zer gertatzen ari zen eta arazoa konpontzen laguntzeko.

-Zer gertatzen ari da hemen?

-Ba, zuria, arrosa, urdin oso argia, marroia eta beltza koloreak erromako zubian sartu nahi dute eta guk ezetz, ezetz eta ezetz esaten diegu baina ez dira joaten.

-Ba, arazoa konpondu behar da.

-Baina nola konpondu daiteke?

-Lehenengo pausoa bozkatzea izango da, hau da, gehienek nahi dutena egin. Zeinek nahi dute kolore berriak sartzea? Besoak altxatu eta nik kontatuko dut: 1 eta 2 koloreak bai. Eta ez sartzea? 1, 2, 3, 4 eta 5 koloreek ez dute nahi berriak sartzea. Gehienek ez sartzea nahi dute. Baina zergatik ez duzue nahi kolore berriak sartzea?

-Beldurra ematen dutelako!

-Ezezaguna dena beldurra ematen du beti. Baina ezezaguna ezagun bihurtu dezakegu.

-Nola bihur daiteke ezagun?

-Sartzen lagatzen eta aukera ematen zuekin jolasteko eta hitz egiteko. Probatu mesedez.

-Zuekin jolastu nahi dugu eta hitz egin. Eta joko berri bat edo gehiago erakutsi diezaiokegu elkarri. Erraza dirudi!

Kolore berriak erromako zubian sartu egin ziren eta elkarrekin jolasten hasi eta disfrutatzen hasi ziren.

-Ze ondo ari gara pasatzen! Orduan gu bezalakoak dira?

-Noski baietz. Zuek bezala ondo pasatzeko irrikitan daude.

-Ah! Kanpotik desberdinak baina barrutik berdinak gara!

-Bai horixe! Eta ikusi ze erromako zubi polit zareten orain!



## ERROMAKO ZUBIAK KOLORE GUZTIAK ONARTZEN DITU

### BI LAGUNEN ISTORIA



Behin batean, Lorea izeneko neska bat Donostian jaio zen. Neska gorputza zuen baina mutil sentitzen zen. Burla egiten zioten eta gaizki pasatzen zuen. Egun batean neska bat ikusi zuen eta hau esan zion:

-Lorea:Kaixo ni Lorea naiz,nola deitzen zara?

-Enara:Ni Enara deitzen naiz.

-Lorea:Nahi al duzu nire laguna izan?

-Enara:Bai!

Horrela Lorea eta Enara lagunik onenak egin ziren.Urte batzuk pasatu zirenean Loreak Enarari mutil sentitzen zela esan zion eta horrela erantzun zion:

-Enara:Niri berdin zait, zuk nahi duzuna izan dezakezu.

-Lorea:Eskerrik asko Enara. Besteak burla egiten didate.

-Enara:Ba ez dizute burlarik egin behar.

Azkenean,Lorea bakean utzi zuten eta Enara eta biak pozik bizi izan ziren.

**Pitxilora eta Krabelin**

# TIRITA ARROSA

Bazen behin, mutiko bat Julen izena zuena, gurasoekin eta arrebarekin bizi zen. Ikastolako atarian zegoela, mutilekin jolastean aspertu egiten zen, neskekin ez bezala.

Egun batean, kalean lagunekin zegoela, harri batekin estropozu eginez belaunean zauri bat egin zuen eta odola ateratzen hasi zitzaion. Ondoren, bere lagun baten amak etxera eraman zuen eta arrosa ez zen beste koloreko tiritarik ez zeukanez, zuen bakarra jarri zion.

Hurrengo astean, ikastolara joan aurretik, bere tirta arrosarekin akordatu zen eta gustatu egin zitzaion, beraz, bere arrebaren erropatan zerbait arrosa topatzea pentsatu zuen. Ikastolan, denek arraro begiratu zioten eta burlaka hasi ziren. Andere oak, gurasoei gertatutakoa kontatu zien eta gurasoek arraro erreakzionatu zuten gertatutakoarekin.

Etxera heldutakoan, gurasoek hau esan zioten, Egia al da zure arrebaren arrokekin joan zarela eskolara? . Julenek baiezkoa egin zuen buruarekin eta gurasoek, oraingoan, ez zuten arraro edo gaizki hartu.

Hurrengo egunean, amak horrela esan zion lagundu nahian, badakizu nesken pentsamenduak eta janzkera gehiago gustatzeak ez duela ezer txarrik ez . Julenek esan zion, ez inori kontatzeko bere sentimenduak, aitari ezik, beldurrez zegoelako.

Urte batzuk inori kontatu gabe pasatu zuen, baina, pixkanaka lagun onenei kontatzen hasi zen, neskei. Haiek ondo hartu zuten eta erropari buruz aholkatzen hasi zitzaizkion.

Horietako egun batean, ikastolako mutil eta neska guztiei kontatu zien eta denbora bat hartu ondoren, denek ondo tratatu zuten.

Sentitzen dena sentitzen da eta bakoitzak nahi duena izango da.

# MARKEL ETA ERROMAKO ZUBIA

Behin batean, Markel izeneko mutil bat jaio zen Erroman. Markel txiki-txikia zela neska sentitzen zen, baina ez zen ausartzen ezagunei eta familiari esaten. Markelen ikastolako lagunek alde batera uzten zuten neska sentitzen zelako. Irakasleak animoak ematen zizkion, baina alperrikan. Markelek oso haurtzaro txarra eduki zuen, transexuala zelako. Markel egun batean ez zen joan eskolara, Markelen ideia zen bere familiari esatea transexuala zela. Baina horrek beldur handia ematen zion, berak pentsatzen zuelako ez zutela onartuko.

Markel dena ausartu eta lehenengo gurasoei esan zien. Gurasoak ondo hartu zuten, baina esan zioten edozeini ez kontatzeko. Bere amona eta aitona lehenagotik zekiten transexuala zela. Amona eta aitona, Markelen etxera joan ziren bisita txiki bat egiteko. Orduan Markelek, amona eta aitona esan zien azkenian kontatu egin ziela gurasoei. Amona eta aitona zoriondu egin zuten Markel, baina gurasoek bezela, esan zioten edozeini ez kontatzeko.

Markel kuriositateak jota zegoen eta bere ordenagailuan informazioa bilatu zuen. Begiratu ostean, harritu egin zen ikustean zer pasatzen zitzairen gay, lesbiana, transexual, intersexual, queer, bisexual eta holakoei. Orduan entenditu zuen zergaitik edozeini ez zion kontatu behar transexuala zela.

Baina Markelen bizia, unibertsitatera iritsitakoan aldatuko zen. Markel emozionatuta zegoen lagun berriak ezagutzeko, joan zen bere lehen unibertsitate eskolara. Unibertsitateko lehen egunak harritu egin zuten, zergaitik LGTB festa zegoelako. Hori ikusitakoan, Markeli bizia aldatu zitzaion. Handik aurrera Markelek entenditu zuen ez zuela axola nolakoa zaren, danok berdinak garela.

**EZ DU AXOLA LGTB IZATEA!**

**EZIZENA: KAKUTE**